

## IRAKASLEARENTZAKO GIDA

### 5. saioa

#### MARIAREN KASUA

**Helburua:** Jazarpen-kasu bati aurre egiteko eta kasua konpontzeko aukerak proposatzea eta horien balorazio kritikoa egitea.

**1.- Irakurri Mariaren kasua.** Irakasleak Mariaren kasua irakurriko du eta ikasleei eskatuko die pentsatzeko ea protagonista nola sentitzen den. Azaldu kontatutakoa egoera irekia dela, amaierarik gabea...

**2.- Lana binaka:**

Identifikatu pertsona batzuei, beste batzuek haiekin dituzten jokabide eta jarreraren erruz, sufrimendua eragiten dieten egoerak. Min fisikoa, beldurra, bazterkeria... sentitzen dituzten egoerak izan daitezke; azken finean, sufrimendu handia eragiten dietenak. Jarri adibideak.

**3.- Lana talde txikian. (4 laguneko taldeak)**

Eskatu ikasleei erantzuteko galdera hauek:

1. Taldeko kideek zer sentimendu dituzte hasieran? Zer arrazoigatik dute haien taldea lagun-taldetzat? Zer partekatzen dute, zertan dira konplize?
2. Zergatik uste duzue harreman on hori arazo bihurtu dela? Zerk ekarri du egoera berria?
3. Zer sentimendu dituzte orain istorio honetako neskek?
4. Zer egoeratan dago orain Maria? Zergatik?
5. Nork uste duzue eragiten diola sufrimendua Mariari? Norbait onura jasotzen ari al da egoera berri honetatik?
6. Proposatu talde osoarentzat ona izango den irtenbide bat. (Nori eska diezaiokete laguntza? Zer motatako laguntza? Zer egin dezake inplikaturako pertsona bakoitzak arazoa konpontzeko?)

Taldeakako lana amaitzean, proposaturako irtenbideak irakurriko ditu bakoitzak. Irakasleak, bitartean, modulatu egingo du, galderak egin, ideiak egiaztatu, ikasleei argudioak eskatu... hala, pertsona guztiak ondo, entzunak, seguru eta abar sentiaraziko dituen konponbide egoki bat lortzeko eta inplikaturako pertsonen artean harreman ona berreskuratzeko.

**AUKERA:** irtenbideak beste laneko saio batean antzez daitezke. Oso interesgarria izango litzateke hori, ikasleek kasuari dagokion paperen bat eginez gero, sentimenduak eta emozioak bizitu eta, aldi berean, enpatiarako, modu aktiboan entzuteko eta abarrerako gaitasuna garatuko bailukete.